

ZIBTAK  
Patxi Zubizarreta

IDA ZLEA

## Afrikar etorkinak

**T**xabi Arnal idazleari behin, artikulubatean, irakurri nion egun batez haurrarekin igerilekuan zegoela, ebanozko gazte puska bat agertu zitzaiera eta, nagusien piszinara joan beharrean, haurrenera inguratu eta, urdinean beltz, jauzi tikiak eta errota mugimendu baldarrak egiten hasi zela. Eta nago halakoxe harridura sentitzen dugula kulturartekotasunaz edo arrazakeriaz testu sinplista eta manikeoak irakurtzen ditugunean. Zehatzago izatearren, gogoan ditut –gogoangarriak baitira– Rafick Schamiren *Narradores de la noche* edo Tahar Ben Jellounen *Bakarkako isolamendua* eta *Partir* bezalako nobelak, baina liburu horiek duten indarra eta distira erabat apaldu eta ilundu egiten dira lehenaren *Cómo curé a papá de su miedo a los extraños* albumean edo bigarrenaren *Arrazakeria, nire alabari azaldua* dibulgazio edo konbentzimendu lanean: “Hitz itsusia esatera noa, aita: zerri hutsa da arrazista” diotso alabak aitari euskarazko itzulpenean (lotsagabea, “*sinvergüenza*” dakar gaztelaniazkoak), eta aitak, segidan: “Kalifikatzaile hori aukeratzean motz samar geratu zara, baina ez datorkio gaizki”.

Errealitatea konplexua da eta konplexutasun hori birrindua gertzen da gai horiek entsegu edo artikuluetan jorratzean eta esplizitatean. Hala ere, Ekialdetik zuzen eta zorrotz mintzo dira Nacer Khemir bezalako sortzaileak: “Fundamentalismoak eta erradikalismoak ez dute Islama aditzera ematen, Inkisizioak Jesusen fedea aditzera ematen ez duen bezala. Gutako bakoitza bestearekiko ezjakintasunean itotzen da. Errealitatea ez, baina beldurra da jendea itotzen duena. Abegikortasuna ez datza soil-soilik jendea onartzean eta jaten ematean, abegikortasuna entzutean eta aditzean datza. Norberaren etxean jendea onartu, jaten ematen eta,



DANI BLANCO



Luze gabe, haurren igerilekuan zebilen gazteak agian kontatu egingo digu laster hemezortzi urte beteko dituela, eta oso litekeena dela poliziak harrapatzea eta bere herrira itzultzea, eta horregatik dabilela igerian ikasi nahian



irudia:

Antton Olaviaga

segidan, ezikusia egitea guztiz ezinezkoa da”. Eta Mendebaldean ere gogorak dira Manu Chaorena bezalako analisiak: “Arrazismoa ez da kolore batekoa, arrazismoa unibertsal da. Sekulako arrazismoa dago mairuen eta beltzen artean, edo Hego Amerikan beltz eta indigenen artean”. ARGIAKO orriotan bertan zioen botere pixka bat lortuz gero, bestea azpiratzeko gogo sortzen dela, eta halaxe da, izan, esaterako mahatsa biltzera gureru etortzen diren ijito espainiar eta portugaldarren artean.

Bai, errealitatea konplexua da eta, batzuetan, umoreak ematen ahal digu horren agerpenik serioena. Hona *Barrio* filmeko protagonistaren galdera: “Auto batean beltz bat, ijito bat eta magrebiar bat baldin badoaz, nor egiten du gidari?”. Erantzuna gordina da, gero: poliziak. Urliak, bestalde, taxista eta arabiar guztiak akabatu behar zirela zioen, eta berendiak erantzun: “Baina, taxistak zergatik?”. Eduardo Subirats filosofoak zioen Berlingo harresia, eraitsi, eraitsi dela, baina askoz ere okerragoak eta kriminalagoak eraiki direla.

Literaturari buruz azken urteotan darabiltzagun kezka burges eta sarritan axalekoak gorabehera, luze gabe gurean ditugun etorkinek aberastu egingo dituzte gure irakurketak, astindu gure barrenak. Hala gertatu da katalaneko Ramon Llull nobela saria irabazi duen jatorri marokoarreko Najat El Hachmike emakumearekin. Luze gabe, haurren igerilekuan zebilen gazteak agian kontatu egingo digu laster hemezortzi urte beteko dituela, eta oso litekeena dela poliziak harrapatzea eta bere herrira itzultzea, eta horregatik dabilela igerian ikasi nahian. Zein erraz, ahanzten dugun Eduardo Galeanoren *Adan eta Eba beltzak ote ziren?*

ipuineko esaldi hura, alegia: “Guztiok gara afrikar etorkinak. Zuririk zurienak ere Afrikatik datoz”. ■